

Mugatxoan ..... 2010  
Arteleku ..... Donostia-San Sebastián. Ekainaren 14tik uztailearen 4ra.  
Teatro de La Laboral ..... Gijón. Uztailearen 5etik 18ra.  
Fundação de Serralves ..... Porto. Irailaren 20tik urriaren 3ra.

MUGATXOAN  
YNAAMI CS FROM +  
NO DECEUCE  
WEDNESDAY 18:00 (30 H LATE  
TSUNJANI FESTIVAL  
MAWIFESTO  
ARCHITECTURE PROPOSAL  
BOARD MEETING  
ANTHEMAN

Mugatxoan 1998az geroztik abian dagoen proiektu artistiko bat da, Ion Munduate eta Blanca Calvo zuzendari artistikoak biltzen dituen lankidetzaren sare informal batetik sortua, Entrecuerpos-Mugatxoan elkartearen eta Arteleku, Fundação de Serralves eta Teatro de La Laboral zentroen bitartez.

Mugatxoan proiektuak ikusizko eta performanceetako artistek partekatutako tailerren, prozesuen eta aurkezpenen programa bat proposatzen du, eztabaida irekia eta baterako ikerketa oinarri hartuta sortze-esperientziak eztabaidatzea eta alderatzea helburu duena.

2010eko Mugatxoan programa Artelekun (Donostia), Teatro de la Laboralen (Gijon) eta Fundação de Serralvesen (Porto) gauzatuko da.

2010eko proiektua bi fasetan gauzatuko da:

- Lehenengo fasea ekainaren 14tik uztailearen 18ra gauzatuko da Donostian eta Gijonen.
- Bigarren fasea, berriz, irailaren 20tik urriaren 3ra Porton.

Lehenengo fasean, tailer programan Mårten Spångberg/Tor Lindstrad, Inazio Escudero eta Itziar Okariz arituko dira irakasle gisa; aldi berean umeentzako tailer bat eskainiko da Eva Meyer-Keller, Rico Repotente eta Sybille Müllerren eskutik.

Bigarren fasean Xavier Le Roy eta Gary Stevens izango dira tailerren arduradunak.

Parte hartzeko banakako proiektu bat aurkeztu behar duzue, zehazki, proiektu horren prozesuaren fase bat, gero tailerrean garatuko duzuen; kontua ez da proiektua amaitzea, ikertzeko eta alderatzeko espazioa eta denbora eskaintzea baizik.

Zuen proiektuetan Ion Munduateren eta Blanca Calvoren laguntza jasoko duzue, gainerako parte hartzaile eta gonbidatuekin esperientziak partekatzeko uneak sortzeko eta ekoizpeneko, lankidetzako, partaidetzako eta esanahi sorkuntzako prozesuak eta moduak ikertzeko.

Lan pertsonala egiteaz gain, taldeko tailerretan parte hartuko duzue aurtengo artista gonbidatuekin, Mårten Spångberg/Tor Lindstrad, Inazio Escudero eta Itziar Okarizekin, lehenengo fasean. Tailerretako lanaren xedea da partekatzeko, berrikustea, berregitea eta eztabaidatzea nola eragiten duen prozesuak proiektuen azken emaitzan. Esperientziak eta jarduerak sorraraztea, eta estrategia paraleloak eta ideia bat gauzatzeko moduari buruzko hausnarketak bilatzen dituzten lan ardatzei ekitea.


Deialdi hau Donostiako Artelekun eta Gijongo Teatro de La Laboralen eskainiko den lehenengo faserako bakarrik da, ondoren azaltzen den egutegiaren arabera:

<b>Egunak</b> .....	2010eko ekainaren 14tik uztailaren 18ra.
<b>Ordutegia</b> .....	Astelehenetik larunbatera, goiz eta arratsaldeko dedikazio intentsiboarekin. Ezinbestekoa da 5 aste jarraian parte hartzea.
<b>Lekuak</b> .....	Arteleku, Donostia-San Sebastián eta Teatro de La Laboral, Gijón.
<b>Parte hartzaileak</b> .....	Ikusizko artearen eta performancearen praktikarekin zerikusia izan eta bere lan prozesua partekatzeko interesa duten pertsonak..
<b>Ikasle kopurua</b> .....	15.
<b>Izena emateko epea</b> .....	Maiatzak 21 arte.
<b>Dokumentazioa</b> .....	NÄren edo pasaportearen fotokopia. Motibazio gutuna. Biografia. Egindako jardueren txostena. DVD eta argazkiak. 5 asteetan garatuko den proiektuaren edo prozesu fasearen zirriborroa.
<b>Eskabideak aurkeztea</b> .....	Zuzenean, jarduera gauzatu den hiru lekuetako edozeinetan edo posta ziurtatuaren nahiz mezulariaren bitartez ondorengo helbidera bidaliz: Mugatxoan 2010 Arteleku, Kristobaldegi 14, 20014 Donostia- San Sebastián.
<b>Hautapena/Tutoretza</b> .....	Blanca Calvo/Ion Munduate.
<b>Tailerrak</b> .....	Mårten Spångberg/Tor Lindstrad, Inazio Escudero, Itziar Okariz.
<b>Ebazpena</b> .....	Maiatzak 25a, hautatuak izan direnei zuzenean jakinaraziko zaie eta zerrenda <a href="http://www.mugatxoan.org">www.mugatxoan.org</a> webgunean argitaratuko da.
<b>Matrikula</b> .....	250 €
<b>Erraztasunak</b> .....	Mugatxoan arduratuko da Donostian eta/edo Gijonen bizi ez diren ikasleei egoitzetan ostatu emateaz, logela bikoitzetan eta gosaria barne dutela; halaber, bere gain hartuko du uztailaren 4ko Donostia eta Gijon arteko joan-etorria.

Informazio gehiago behar izanez gero, ondorengo helbidera jo dezakezu:  
[info@mugatxoan.org](mailto:info@mugatxoan.org)

Mugatxoan ..... Tailerra

**Mårten Spångberg / Tor Lindstrand (International Festival)**  
Ekainaren 22tik uztailaren 3ra, Artelekun



Kultura erakundeen eta horietako erabiltzaileen arteko harremanak eta hirietan erakundeek duten funtzioa aztertzea eta bir-irudikatzea xede zuen 2009ko iraileko tailerra egin ondoren, berriz itzuli gara proiektu espezifiko bat gauzatzeko Donostian.


Zenbait jarduera proposatzen ditugu hiriko hainbat lekutan hiria arkitekturatik eta ekintzatik irudikatzeko.

Arkitektura ez datza eraikinak diseinatze hutsean, hiria eraikin multzo bat baino gehiago da. Hiria irudikatzeko eta praktikatzeko modua hiria osatzen duten erakinek ez ezik, espazio publikoen, plazen eta parkeen, azpiegiturak eta bolumenak ere zehazten dute. Jendeak hirian duen jokabidea bere identitatearekin eta partaide izan nahiko lukeen taldearekin lotuta dago; era berean, badu zerikusirik hiri hori hautemateko moduan eta besteek hiria esperimintatzeko eran norberak eragiteko moduan.

Tor Lindstrand eta Mårten Spångberg elkarlanean hasi ziren 2004an *International Festival* gisa, baina batera lan egin izan dute 90eko hamarkadaren hasieraz geroztik. Arazorik gabe lantzen dute performancea, bideoa eta arkitektura, alderdi teorikoa eta akademikoa, eta entretenimendu hutsa. *International Festival* epe luzeko lankidetzaren plataforma bat da, arkitekturaren eta performancearen artekoa. 2007an “Urteko arkitekto” nominatu zituzten Suedian. *International Festival* plataformaren lana gizarte eta ekonomia testuinguruetakoa banaketaren, erantzukizunaren eta jabetzaren inguruko gaietan biltzen da. Arkitekto batek eta performancearekin lotura duen artista batek sortu zuten, eta espazio-denboraren koordinazioa modu proaktiboan aktibatu eta aldatzeko aukerak funtsezkoak diren eremu bat hartzen dute. Lan hau ikuslearekin lankidetzan sortzen dituen harremanen espezifiktasunean eta berezitasunean kokatzen da.

<http://international-festival.org>

Mugatxoan ..... Tailerra  
Inazio Escudero  
Uztailaren 5etik 9ra, Teatro de La Laboral



Demagun Mugatxoan proiektuko abentura honetan izena ematea erabaki duzula eta jakin nahi duzula nor naizen edo zer egingo dugun Gijonen. Utzi irakurtzeari eta bidali eskaera orria. Laboralean egingo denaren inguruan zenbat eta gutxiago jakin hobe.

Besterik gabe begirada bat ematen eta egun horietan zer egin bilatzen ari bazara, egin kasu eta mugi zaitez; bidaiatzea eta jende diferentearekin egotea, beste modu batean lan egiten duen jendearekin egotea, abentura bat da besteekiko ditugun diferentziak ikusteko. Hala ere, egingo ditugun jardueren inguruan gehiago jakin nahian jarraitzen baduzu... kendu oinetako bat, erantzi galtzerdia, atximur egiozu behin eta berriz behatz bati, bere oinarriari, kuxinari, goitik eta behetik egin, behatz bakarrean egin, zeinetan? (ahaztuenean). Jarraitu horrela pixka batean. Gero itzuli testura.

Amaitu al duzu? Kitto? Garrantzitsua da azala gogotik bihurritzea.

Badakit jendeak aurrez jakin nahi dituela gauzak, baina ez daukat jardueri buruzko datuak emateko gogorik. Garrantzitsuenaz ez da zer egingo dugun, taldean lan egiteko eta egunean ordu batzuetan urtzeko prest egotea baizik. Gauzak bizi egin behar dira. Tailerreko orduetatik kanpo, zuen proiektu pertsonalak garatzeko denbora izango duzue, beraz, besteren eskuetan jartzeko prest dagoen jendea espero dut. Seguru asko musikarekin zerikusia duten ariketak egingo ditugu, esaterako abestu. Gauza asko probatuko ditugu eta egoerak sortzen ahaleginduko gara.

Beraz, eskerrik asko atximurak egin badituzu. Egin ez badituzu edo irudimenarekin bakarrik egin badituzu, pentsa ezazu test moduko bat zela.


Zuk bakarrik jakingo duzu odol zirkulazioa aktibatu duzun edo ez.

*Gauza guztiek dute bere zergatia, baina zergati guztiak ez dira beharrezkoak aldezturik.*

Inazio Escudero

Inazio Escudero (Bilbao, 1972) Rock taldeetan hasi zen eta arte ederretako ikasketak egin zituen ikus-entzunezkoetan espezializatuta. Zürich edo Bartzelona bezalako hirietan urte pare batez bizitzen egon ondoren, Bilbora itzuli zen 1998an eta bertan jarraitzen du irakaskuntza eta artea uztartuz, bideo edizioko eta postprodukzioko irakaslea baita. Bere lanak hainbat galeria, arte museo, musika jaialdi, kontzertu areto eta/edo autogestionatutako espaziotan erakutsi izan dira, besteak beste honako hauetan: Bilboko Arte Ederretako Museoa; Leongo MUSACen; Bilboko Rekalde aretoan, Bordeleko Galerie du Trianglen; Bartzelonako ADN galerian; Madrilgo Alcalá 31 aretoan; Gasteizko Montehermoson; Iruñeko Moises Perez de Albeniz galerian; Bilboko Musicaexmachina jaialdian, Tolosako Bomberenean; Bilboko Le Larraskito klubean; edo Palma Mallorcako La Fundación A.C.A.n.

Mugatxoan ..... *Tailerra*  
**Itziar Okariz**  
Uztailaren 12tik 16ra, Teatro de La Laboral





Tailerra performance jarduerari buruzko hausnarketa bat izango da, eraikuntza kultural gisa hartuta, zeinuak sortzeko, bide berriak urratzeko eta kodeak eraldatzeko tresna modura aurkeztuta.

Batetik, parte hartzaileak gonbidatu nahi ditut sorkuntza prozesua partekatuzera, komunikazioko oinarriko konfigurazioei, kultura edo gizarte zeinuei dagokienez: konbentziokoak eta giza harremanen protokoloak diren diosalak, agurrak eta esaldiak. Testuingurutik ateratzea landuko da esanahia eraldatzeko tresna gisa; hala, ohiko edo testuinguru jakin bateko esanahia duen esaldi edo testu bat eraldatu egingo da beste testuinguru batera eramanda, eta errepikapenaren edo banaketaren bitartez bere forma aldatuta. Era berean, ahotsaren izaera performatiboa, doinua eta modulazioak dakarren esanahi aldaketa aztertuko dira.

Bestetik, ikusleen eta performerraren arteko konbentziozko harremanak eta halakotzat jotzen dituzten elementuak (txaloak, txaloaldiak, txistuak) aztertuko dira; baita performancea defini dezaketen elementuak ere, hala nola, mikrofonoa edo mikrofono hanka, edo gorputz keinuak, adibidez, erreberentziak edo aurpegi keinuak.

Lan horrekin batera, landutako gaiak testuinguruan kokatzen laguntzen duten material gehigarriak ikuskatzea eta irakurtzea proposatu nahi nuke: Chantal Akerman eta Eve Kosofsky Sedwick, besteak beste.

Itziar Okariz

Itziar Okariz (Donostia, 1965) New York eta Bilbo artean bizi eta lan egiten du. Azken urteotan bere lanaren ardatza produkzio dokumentala izan da, gure jarrera definitzen duten arau sozialak zalantzan jartzen dituzten jarduerai, leku pribatu nahiz publikoetan egindakoei, buruzkoa. Azkenaldian egindako banakako proiektuen artean honako hauek daude: Bilboko Carreras Múgica galeriako erakusketa, 2009an; *GhostBox* Bilboko Rekalde aretoan, 2008an; *Curating the campus: To Pee in Public and private Spaces* Amberesko The Singelen, 2007an; *Talent* Vita Kuben, Umea, Suedian, 2007an; *Climbing Buildings*, «If I Can't Dance...» Jaialdia, Utrechen 2007an; *Irrintzi*, Repetición Artearen eta Generoaren III. Topaketen barruan, Sevillako Centro Andaluz de Arte Contemporaneon, 2007an. Berriki, hainbat talde-erakusketetan parte hartu du: «Chacun a son gout» Guggenheim Bilbao Museum, Bilbo; «Kiss Kiss Bang Bang» Arte Ederretako Museoa, Bilbo, 2007; «Attitude» c/o Atle Gerhardsen Gallery, Berlin, 2006; «The Dead, Absent, and Fictitious», LTTR komisario izan zuen bideo erakusketa, REDCAT Concert Hall, Los Angeles, 2006.



*Hondamendien ondoren eraikitzen\_soinu proiektua.*

Hondamendien soinuak ohiko objektuekin orkestratu nahi ditugu. Euri hotsa ilarren bitartez egingo dugu, haize hotsa plastikozko orri baten bidez. Mikrofono ezberdinekin lan egingo duzue eta hondamendien gaiaren inguruko hotsak aurkituko dituzue. Lurrikarak, sumendien erupzioak, uholdeak, urakanak, hegazkin istripuak, eta urtzen ari diren glaziarrak, baina eskala txikian – hondamendiak irudikatzen dituzten zapata kaxen tamainako maketak.

Tailerraren azken egunean, umeek aurkeztuko dituzte landutako hondamendien eredu gogokoenak.

Eva Meyer-Keller, Sybille Müller eta Rico Repotente  
berlindarrak dira eta azken hamar urteotan performancea, dantza, bideoa eta soinua landu dituzte.

*Arteleku, Donostia-San Sebastián*

**Tailerrak**

<b>Ekainak 14-18</b>	Ion Munduate/Blanca Calvo.
<b>Ekainak 22-Uztailak 3</b>	Mårten Spångberg/Tor Lindstrand.
<b>Ekainak 30-Uztailak 2</b>	Eva Meyer Keller/Rico Repotente/Sybille Müller.

**Aurkezpenak**

<b>Ekainak 29-Uztailak 2</b>	Bideo-instalazioa. <i>Bauen nach Katastrophen</i> . Eva Meyer Keller.
<b>Uztailak 1-3</b> 20:00	Proiektu espezifikoa. Mårten Spångberg/Tor Lindstrand.
<b>Uztailak 2</b> 16:00	Proiektu espezifikoa umeekin. Eva Meyer Keller.

---

*Teatro de La Laboral, Gijón*

**Tailerrak**

<b>Uztailak 5-9</b>	Inaxio Escudero.
<b>Uztailak 12-16</b>	Itziar Okariz.

**Aurkezpenak**

<b>Uztailak 10</b> 20:30	<i>Anplia</i> . Inaxio Escudero.
<b>Uztailak 17</b> 20:30	Dokumentala. <i>Mugatxoan hamar</i> .

---

*Fundação de Serralves, Porto*

**Tailerrak**

<b>Irailak 20-25</b>	Xavier le Roy.
<b>Irailak 28</b>	Gary Stevens.

**Aurkezpenak**

<b>Irailak 4</b> 22:00	<i>Product of other circumstances</i> . Xavier le Roy.
<b>Irailak 30</b> 22:00	<i>Island</i> . Gary Stevens.
<b>Urriak 2</b> 22:00	<i>Not Tony</i> . Gary Stevens.
<b>Urriak 3</b> 22:00	Dokumentala. <i>Mugatxoan hamar</i> .

Mugatxoan 2010 proiektu elkartua da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arteleku (Donostia), Portoko Serralves Fundazioa, Gijongo Teatro de La Laboral, eta Entrecuerpos-Mugatxoan Kultur Elkarteak dira ekoizleak. Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.



Asociación Cultural y Artística

Pinar 5, 7º B. 20301 Irún.

T +34 943 577842

GSM +34 609 946 180

[info@mugatxoan.org](mailto:info@mugatxoan.org)

<http://www.mugatxoan.org/blog/>

---

arteleku



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kristobaldegi 14. E-20014 Donostia - San Sebastián.

T +34 943 453 662

[arteleku@gipuzkoa.net](mailto:arteleku@gipuzkoa.net)

[www.arteleku.net](http://www.arteleku.net)

---

## SERRAVES

Rua D. Joao de Castro 210. 4150-417 Porto.

T +351 226 156 580

[c.grande@serralves.net](mailto:c.grande@serralves.net)

[www.serralves.net](http://www.serralves.net)

---

laboral  
teatro

Luis Moya Blanco 261. 33203 Gijón.

T +34 985 185 594

[www.teatrodelalaboral.com](http://www.teatrodelalaboral.com)

Izena: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Posta kodea: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_

Tel./Fax: \_\_\_\_\_

e-mail: \_\_\_\_\_

Jaiotze-data/Jaiotze-herria: \_\_\_\_\_

Lantegia/Ikastetxea: \_\_\_\_\_